

9. KOSTUEN EGITURA

Kostu finkoak

Materialen erosketa: Betaurrekoen fundak egiteko behar diren materialak (gai nagusiak, tresnak, etab.). Guztira, 563 €-ko gastua izan dugu hasierako inbertsioa.

PRODUKTUA	ERREFERENTZIA	HORNITZAILEA	KOPURUA	PREZIOA/ UNITAT.	BEZa	PREZIOA BEZ GABE	PREZIOA BEZAREKIN	GUZTIRA
Oihala	Oihal koloretxuak eta lodiak	Euleuk Elkartea	3 m	8€	1,68€	6,32€	8€	24€
Kortxete	Beltzak	Lanas Maika	50	8€	1,68€	6,32€	8€	16€
Orratzak	Orratza unibertsala	Entretelas	10	4,50€	0,94€	3,55€	4,50€	9€
Haria	Zuria	Lidl	1	2,50€	0,52€	1,97€	2,50€	5,00€
Betaurrekoak	Presbisia, miopia...	Berrerabilak	50	-	-	-		-
Betaurrekoak garbitzeko likidoa	-	Mercadona	2	2,25€	0,47	1,77€	2,25€	4,50€
Kotoi oihala	Beltza	Tejidos Junguitu	1 m	5€	1,05€	3,95€	5€	5€
Fieltroa	Grisa	Tejidos Junguitu	1 m	3€	0,63€	2,37€	3€	3€
Kordoi	Grisa	Lanas Maika	25 m	1€	0,21€	0,79€	1€	25€
Pegamentoa	Sendoa eta berehalakoa	Bricodepot	1	5€	1,05€	3,95€	5€	5€
Mosketoi txikia	Grisa	Tejidos Junguitu	100	10€	7,90€	2,10€	10€	20€
Paketea			2	200€	42,00 €	158,00€	200€	400€
Gasolina		Senegaleko gasolindegia	55 Km	1,5€/l			1,5€/l	46€

Oihalak erosi dugu fundak egiteko, betaurrekoak babesten duena delako.

Kortxeteak erabili ditugu fundak ixteko, betaurrekoak ez irtetzeko eta ez apurtzeko.

Orratzak eta haria erabili ditugu funda osoa josteko eta kortxetea josteko.

Betaurrekoak dohaintzak dira, orduan ez dute izan kosturik.

Betaurrekoak garbitzeko likidoa erosi digu betaurrekoak prestatzerakoan eta kompontzerakoan, garbitzeko ondo eta desinfektazeko bidali aurretik.

Kotoi oihala funda bakoitzean zati txiki bat sartu dugu betaurrekoen kristalak garbitzeko, oihak honetan ez dute behar garbitzeko likidoa.

Fieltroa eta pegamentoa erosi ditugu betaurrekoak konpontzeko.

Kordoia eta mosketoi txikiak erabili ditugu fundak egiteko, bi zulo egin ditugu fundaren goiko aldearen bi muturretan, eta lokarriak mosketoiari josi dizkiogu, funda lepotik zintzilik eraman nahi badute, inolako arazorik gabe egin ahal izateko.

Eta azkenik bidalketan, bi paketetan bidali beharko dugu, denak pakete batean bidaltzea oso garestia ateratzen zelako, eta irtenbidea izan zen bidaltzea bi paketetan, ekonomikoagoa eta merkeagoa izateko.

Hegazkinak paketeak Dakar-ren uzten du, eta, beraz, elkartekoek aireportura joan beharko dira bere bila eta herriraino eraman. Kalkulatzen dugu 55 kilometro inguru daudela, eta litroa batez beste 1,5 euro eginez gero, 46 euro gasolina ateratzen da aireportutik herriraino.

Guztira 563 euro ateratzen zaigu dena kontatzen.

Kostu aldakorrak

Funden ekoizpena proiektuaren eskariaren arabera handitu edo murriztu ahala, material gehiago erosteko gastuak.

Kostu sozialak

Ingurumenarekiko eta gizartearekiko eragina kontuan hartuta, gure helburua betaurreko erabilgarriak berrerabiltzea da, hondakin kopurua murrizteko eta baliabideak optimizatzeko.

Ez dugu josteko makinarik erosi, ikastetxean makina bat baino gehiago dituztelako eta utzi digute fundak egiteko eta proiektuaren kostua murrizteko.